



Hondarribia

HERRI ALDIZKARIA
202. zkia . 2007ko iraila

Argazkia: Fernando de la Hera

HONDARRIBIKO UDALA . EUSKARA BATZORDEA . DOHAIN

IDI-PROBA EDERRA ZUMARDIAN

4-10. Herrian barrena

24. Arrantza

12-13. Elkarrizketa: Hondarribiko
historiaren lagunen elkarte

27. Gazte Informazio Bulegoa

30-31. Abuztuko demografia

15-18. Jaiak 2007

www.hondarribia.org / argitalpenak / Hondarribia

JATETXEA-TABERNA



San Pedro, 35
20280 HONDARRIBIA

Tels. 943 64 27 71
943 64 10 19



Tel.: 943 11 02 01
San Pedro, 33 - 20280 HONDARRIBIA

*Zure terrazak betiko zerbitzu onenarekin, Hondarribiko Portua auzoan,
gastronomi espezialitate onekin*



kutxa



Aliprox
SUNSUNDEGI

Telf. 943 64 15 40
Santiago kalea, 17
20280 Hondarribia

BATZOKI

TABERNA - JATETXEA



- Eguneko menua
- Menu bereziak
- Karta
- Gure terraza goza ezazu

Gora Ama Guadalupekoa

Mouriskot etxea · Tel. 943 64 53 64
20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa)



Serapio Múgica, 5
IRUN
Tel.: 943 61 29 00

San Pedro, 12
HONDARRIBIA
Tel.: 943 64 20 76

Revellin, 3
HONDARRIBIA
Tel.: 943 64 56 45

Avda Navarra, 4
IRUN
Tel.: 943 62 37 03



NAUTICA
PLAYAUNDITXASO



SERVICIO OFICIAL YANMAR

VOLVO

SOLE

MARINER

EVINRUDE

NAUTICA PLAYAUNDITXASO
Puerto Deportivo 3-4
Hondarribia
943-641534 - 943-395061
fax 943 - 644950
www.playaunditxaso.com

Fabricación piezas inox
Electricidad naval / Accesorios náuticos



Izan zaitez MINTZALAGUN!

As k o
d i r a
Irunen
eta Hondarri-
bian euskara
ikasten ari
direnak.

Ziur baten bat ezagutzen duzula edota, agian, zu zeu ere aritu zara noizbait hizkuntza bat ikasten. Badakizu, hortaz, hizkuntza bat ongi ikasteko erabili egin behar duzula.

MINTZALAGUNA egitasmoa 2000. urtean sortu zuen Irun Iru-
ten euskara elkarteak euskara ikasten ari zenari klasetik kanpo
euskaraz hitz egiteko aukera emateko.

Programa hau aurrera eramateko Irungo eta Hondarribiko uda-

len eta euskaltegien laguntza izaten du Irun Irutenek, baina,
batez ere, MINTZALAGUNEN, mintzatzeko lagunak, laguntza.

Beraz, MINTZALAGUNAK behar dira. Nahikoa da astean ordu
bete edota bi ordu libre izatea. Euskara ikasten ari den batekin
edo birekin elkartuko zaitugu eta zuek erabakiko duzue non,
noiz eta zertarako bilduko zareten: kafetxo bat hartzeko, ibiltze-
ra joateko... Ez dira klaseak, helburua euskaraz hitz egitea
baita, eta mintzalagunak ez zarete irakasleak, mintzatzeko
lagunak baizik.

Izan zaitez MINTZALAGUN!

Nahikoa da, urriaren 26a baino lehen, ondoko izenemate fitxa
betetzea eta Irun Iruten euskara elkartera bidaltzea edota era-
matea (*Foru kalea,4-2.ezk. 20304 Irun / iruniruten@euskal-
net.net*).

Argitaratzailea:

Udal Euskara Batzordea

Erredakzioa/publizitatea:

ZIF & Comunicación

info@zifcomunicacion.com

Tel.: 943 63 81 28

Kolaboratzaileak:

Koldo Ortega

Ainara Elizondo

Martin Iturbe

Jexux Mari Mendizabal

Argazkiak:

Hondarribiko Udala

ZIF & Comunicación

Fernando de la Hera

Floren Portu

Maketazioa:

Usoa Ramírez Melón

Inprimategia:

Antza

L.G. SS 122/86

HONDARRIBIAK ez du bere gain
hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien ondorioak.

TXANDAKO BOTIKAK URRIAN

30- Sagrario Fiz Sokoa Merkatalgunea943 644316
7- Almajano Mendelu auzoa, 26..... 943 640068
12- Sagrario Fiz Sokoa Merkatalgunea943 644316
14- Alameda Harresilanda, 9943 645798
21- Erauskin San Pedro, 22943 641018
28- Iraola San Pedro, 5943 641027

TXANDAKO OKINDEGIAK URRIAN

30- Martinez Kale Nagusia, 17943 641212
7- Arratibel Mendelu auzoan943 641975
12- Garmendia Portuan943 641136
14- Martinez Kale Nagusia, 17943 641212
21- Arratibel Mendelu auzoan943 641975
28- Garmendia Portuan943 641136

San Pedro kalera joan da Balkoi Loredunen lehen saria

San Pedro kaleko 65. zenbakiko bigarren solairua izan da aurtengo Balkoi Loredunen lehiaketaren irabazlea. Zenbait egunetan kalez kale ibili ondoren eta lehiaketako baldintzak kontuan izanik, Liborio Aramburu eta Jose Angel Lacalle epaimahaikideek, jarraian aipatzen dizuegun garaileen zerrenda aditzera eman zuten.

Lehen saria, M^a Soledad Arregui Imaz (San Pedro kalea, 65 - 2) izan da. Bigarren sariaren jabea, Ana Mari Alberdi Larruskain (Donosti kalea, 29 - 1 D Sokoa), eta hirugarren saria M^a Carmen Sanchez Iglesias (Gibeleta auzoa, 12 B - 1 A)

Azkenik, Ostalaritza eta Merkataritzako sari berezia, Santiago kaleko 47. zenbakian dagoen Antontxu jatetxearentzat izan da.



Lehiaketa irabazi duen balkoiaren irudi bat

Txingudiko Zerbitzuek iaz baino %4 zabor gehiago jaso du Jai Nagusietan



Jaietan lana gogotik egiten dute zaborra biltzen dutenek

Txingudiko Zerbitzuek iazko Jai Nagusiekin konparatuta %4 zabor kilo gehiago jaso zituen. Orotara, 155.220 zabor kilo jaso ziren (149.740 kilo izan ziren 2006an). Era berean, beirari dagokionez, jasotako kiloak 4.676 izan dira, Portuan, Alde Zaharrean eta Bentan jaso direnak batuta.

Jaietan kaleetako zaborrak jasotzen aritu diren pertsonak 32 izan dira. Lan gehien izan zuten eguna irailaren 9a izan zen, denetara 28.600 kilo jaso zirelarik. Bost langile gehiago behar izan ziren egun honetan.

Garbiketa zerbitzuek jai inguruetatik bi pankarta kendu zituzten. Erdiguneko zenbait kontenedore goizez jaso behar izan ziren, inguruetan aparkatuta zeuden zenbait autok kamioiari bere lana egiten eragozten baitzioten.

Jaiak amaituta, 13 kide osatutako talde batek gaurtik aurrera hiri-ko auzo guztietan garbiketa lanekin jarraituko du. Gaurko jardunaldian, Txingudiko Zerbitzuek Benta Zaharreko aparkalekua garbituko du, orain arte karpa bat eta sei txosna baitzeuden bertan.

Hemendik aurrera HONDARRIBIA aldizkaria zure etxean **dohainik** jaso nahi baduzu, bete ezazu harpidetza-txartel hau eta bidali edo eraman Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Hondartza Kiroldegiak neguko
ikastaroen eskaintza
aurkeztu du

Udazkena gainean daukagu eta Hondartza Kiroldegiak hilaete hauetarako ikastaro eta ekintza desberdinen eskaintza luzatu du, kirol diziplina ugari jasotzen dituenak, astelehenetik ostiralera eta goizeko lehen ordutik eguneko azken-nera arte joango direnak.

Eskaintza hiriko bi alor nagusiei zuzentzen zaie: 3 eta 16 urte arteko gazteak alde batetik eta 16 urtetik gorako gazte eta helduak bestetik.

Gaztetxoenek eskola igeriketa, tenisa eta maila altuko igeriketa egin ahal izango dute. Bazkide direnatzat eta ez direnatzat prezio desberdinak daude.

Gazte eta helduentzat, kirol eskaintza oso zabala da. Hiru hila-
beteko iraupena eta urte osokoak desberdintzen dira. Aukeren
artean, tenisa, padela, cyclinga, pilatesa, gapa, eskalada, mante-
nimenduko gimnasia, aerobika, yoga, funkya, aquagima, igerike-
ta eta prestakuntza fisikoa uretan daude.

Izen emateko epea irekita dago abonatuentzat, eta ez direnek aurrerago izango dute bere aukera. Informazio gehiagorako, 943 647137 telefonora deitu.



Hondartza Kiroldegiaren barneko argazki bat

Saharako haurrak Tindouf-era itzuli dira

Amaitu da uda, eta amaitu da horrekin batera Saharako haurrek Oporrak Bakean deituriko programaren barnean egiteko artean bi hilabete igarotzeko aukera. Programa honi esker, aurten Saharako zortzi haur Hondarribiko beste hainbat familian egon dira, haurren mantenua familiaren kontu joan delarik.

Gizarte Zerbitzietako eta Gazteriako zinegotzi den Maite Pelaez pozik ageri da. "Beste urte betez zortzi haur hauek gure artean egotea lortu da, beraientzat garrantzitsua eta osasungarria zerbait da. Oso pozik gaude familiek erakutsi duten jarrerarekin, beraientzat izango ez balitz ezingo genuke aurrera egin proiektu honetan. Hala ere, gizarteko ohiturak aldatzen dira, eta gero eta zailagoa egiten zaigu haur hauei behar dutena eskaintzea, gurasoek lan egiten baitute eta ez da batere erraza".

Udalak 8000 euroko aurrekontua dauka programa honetarako, "baina ezingo genuke aurrera egin Tadamun Elkarte eta familiengatik izango ez balitz" amaitu zuen zinegotziak.



Saharako haurrak pozik ibili dira gure herrian

a-dos moda

Calle Zuloaga, 14
20280 Hondarribia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 11 19 69



ZABALA

CATEDRAL

San Pedro Kalea 8
Hondurribia
Tlfno. 943 642736

Helduen Hezkuntza zentroan izena emateko epea zabalik dago



Bidasoa bailarako egoitza Irungo Olaberria auzoan dago

Bailarako Pertsona Helduen Hezkuntzarako zentroak (gaztelaz EPA deitzen dena) bere ateak ireki ditu aurten ere bere formakuntza osatu nahi duten guzti haiei begira. 2007/2008 ikasturte honetarako Bigarren Hezkuntzako Graduatua lortzeko aukera egongo da, 25 urtetik gorakoentzat Unibertsitatera sartzeko frogarako prestakuntza eskaintzen da eta 20 urtetik gorakoentzat Goi Mailako Ziklo Formatiboak emateko aukera ere badago.

Informatika, euskera, ingelesa eta frantsesez ikasten hasi daiteke zentroan. Atzeritarrentzat, gaztelera eta euskarako klaseak ematen dira, baita gida baimeneko azterketa teorikorako prestakuntzak ere.

Matrikula egiteko epea datorren irailaren 30 arte irekita dago. Interesa dutenek zentroak Irungo Olaberria auzoan daukan egoitzera joan beharko dute, edota 943-626612 telefonora deitu.

Informazio gehiago nahi izanez gero, www.comunidades.kzgu-nea.net/epairunhondarribia begiratu.

Portua auzoa eta Akartegi arteko igogailuaren proiektua aurkezteko epea zabaltu da



Datozen urteetan irudi hau aldatu egingo da

Irailaren 4tik urriaren 1era arte udalean aurkeztu ahal izango dira gutunazalak Portua Auzoa eta Akartegi arteko irisgarritasuna hobetzeko proiektuari buruzkoak. Proiektua eta obra Udal Arkitectoak egindako aurreproiektuaren arabera egin beharko dira eta gehienez bi aldaera aurkeztu ahal izango dira. Eskailera mekanikoak kentzeko aukera aurreikusi beharko da igogailu bakarrarekin, Madalen karrika eta Donosti kalea arteko kota desberdintasuna salbatuko duena.

Proiektua idazteko epea sei hilabetekoa izango da eta proiektua onartzen denetik obrak 12 hilabeteko epearen barruan burutu beharko dira.

Lizitazioari dagokion kopurua 75.000 eurokoa da BEZ barne proiektuaren ordainsarirako eta 1.925.000.- eurokoa BEZ barne obrak burutzeko.

KARNET ERAKO ARGAZKIRIK BEHAR?

NAN, GIDA BAIMENA, EHIZA, IKASTETXE...
EDOTA LAGUNEI OPARITZEKO

20 ARGAZKI KARNET ERAKOAK

foto
FRANAN

Zuloaga, 4
Anbulategiaren parean
HONDARRIBIA

BAKARRIK

3,58.-euro

ARRETXE



ERRETERIA

Larzabal 14 • 943 34 01 82

DONOSTIA

Zabaleta 54 • 943 28 65 72

HONDARRIBIA

J. Alonso 7 • 943 64 27 77

Mendelu 17 • 943 64 70 58

Bixente Muñoz Danimarkako Elikadura ministroaren sukaldari



Sukaldari hondarribiarrak arrakasta handia lortu du Danimarkan

Bixente Muñoz sukaldari hondarribiarra Danimarkan izan da "Taste The Art" izeneko ekitaldi batean parte hartzen. Bertan, gastronomia eta artea uztartzen dira, eta Gran Sol jatetxeko sukaldariak bere sukaldeko produktuak erakutsi ahal izan ditu, horien artean Eva Kjer Hansen, Danimarkako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura ministroa zegoen. Irudietan agertzen den bezala, agintariak gozatu egin zuen sukaldari hondarribiarrak prestatutako pintxoekin.

Muñoz-ek esan duenez, "oso esperientzia positiboa izan da. Euskal Herrian pintxo eta orokorrean sukaldean egiten ari garen lana atzerrian erakusteko aukera bikaina eduki dut, eta jaso dudan iritzien arabera, oso izen ona daukagula esan dezaket".

Bixente Muñozek Aarhus hirira Hondarribiko zenbait ezaugarri eraman zituen. Hansen ministroari Erreginaren Baluartearen irudixoa eraman zion, baita Javier Sagarzazu eta Javier Aramburu hondarribiarrak egindako "Hirian Barrena. Hondarribia" izeneko liburua ere bai.

Jarduera berriak Kasino Zaharrean

Kasino Zaharretik aditzera ematen da taichi, mantenimenduko gimnasia eta memoriaren entrenamentua ikastaroetan parte hartu nahi dutenek jadanik zabalik daukatela izenematea egiteko epea. Egoitzeko bulegotik pasa behar da astelehen, asteazken eta ostiralean 10.30etatik 12.00etara.

Ezinbestekoa hiruhereroko ordainagiria aurkeztea (12 euro). Plazak mugatuak dira eta izena emateko epea datorren urriaren 1ean amaituko da.

Era berean, Egoitzetik bazkideek izan ditzazketen ideiak entzuteko prest daudela esan zaigu.



Adinekoen Egoitza gogor dabil lanean



**BARRIO
HONDARRIBI**

**AUKERA HAUNDIA BANDERILA
ETA KAXUELETAN**

San Pedro, 31
Tel: 943 642705

20280 HONDARRIBIA



San Pedro, 27 20280 Hondarribia
Tel.: 943 642 102

Aireportuaren pista murrizteko lanen lehiaketa deitu du AENAK



Ion Elizalde eman zuen aditzera Udalaren eritzia

Aenak (Espainiako Aireportuak eta Airezko Nabigazioa) nazioarteko aireportuek izan beharreko segurtasun eremuak moldatzeko lanak lizitatu ditu eta, hala, Hondarribiko aireportuaren pista murriztu beharra izango da. Denera 300 metro kenduko dizkiote; 150 metro alde bakoitzean. Gaur egun 1.754 metro dauka erabilgarri.

Neurriaren ondorioz, hegazkin handiak ezingo dira sartu aireportuan, turbohelizeak baino ez dira sartuko. Bertako arduradunak (AFODESA), kexu azaldu dira murrizketen-gatik; pista bera luzatzeko proposamena egina zuten, gainera.

Lanekin azaroan hasteko asmoa dago. Dena dela, konponbiderako tarterik egon daiteke, baldin eta Espainiako Gobernuaren Sustapen Ministerioa eta Gipuzkoako Foru Aldundia adostasunera iristen badira.



Aireportuaren pistak 1754 metroko luzera dauka

JATETXEA

LA HERMANDAD DE PESCADORES

Calle Zuloaga, 12 • HONDARRIBIA • Tel. 943 64 27 38

Foto Sistema

ARGAZKIAK

ORDU BETEAN

Itsasargi 3
Tel. 943 64 57 65
20280 HONDARRIBIA

Literatur tailer berria aurkeztu da



Ezkerretik eskuinera, Xabier Tife, Maite Gonzalez eta Kote Guevara

Udaletxeko Areto Nagusian aurkeztu zen irailaren 20an hasi berri den ikasturteko Literatur Tailerra. Udal Liburutegiak antolatuta, aurkezpenean izan ziren Xabier Tife Kultura Zinegotzia, Kote Guevara liburuzaina eta Maite Gonzalez Esnal, tailerraren arduraduna.

Guevarak esan zuenez, "iaz egindako bidearekin jarraituko dugu. Irakurketa tailerra liburu bat aldi berean irakurtzeko elkartzen den talde batek osatzen du. Elkarketa horietan eztabaidatzen da bakoitzak etxean irakurritakoa: Literatur estiloa, akzioa, pertsonaiak... eta askotan liburuari buruz hitz egite hasi arren, bakoitzaren esperientzia pertsonaletara jotzen da. Argi utzi behar da foro ireki bat dela, irakurtzea gustuko duen edonor etor daiteke". Izen emateko epea irailaren 24tik 29ra zabalik egongo da Udal Liburutegian.

Maite Gonzalez arduradunaren hitzetan, "ikasturtea guk urriaren 3an hasiko dugu. Iaz 40 lagun biltzen ginen hiru taldetan. Denei eskertu behar diet etorri

izana, bakoitzaren esperientziarekin esperientziak eta aberastasuna lortzen ditugu eta".

"Denboraldi berri honetan gai lokal eta unibertsalak jorratuko ditugu ere. Gainera, hiru hilero aurretik irakurri dugun liburu batean oinarritutako filma bat ikusi eta aztertuko dugu" esan zuen Gonzalezek.

Hondarribiko Udal Liburutegiak antolatzen duen irakurketa tailerra helduei zuzenduta dago, hamabostean behin, ordu eta erdiko elkarriketak daude aurreikusita. Ordutegia arratsaldeko 15:30etatik 17:00ak bitartekoa da. Hiru talde daude bi gaztelaniaz eta bestea euskaraz.

Informazio gehiagorako 943111295 telefonoan edo liburutegia@hondarribia.org



lazko tailerraren irudi bat



**JAVIER
OPTIKO**

OPTIKA ETA OPTOMETRIAN DIPLOMATUA
OPTOMETRIA KLINIKOAN MASTERDUNA
KONTAKTUKO LENTEAK

San Pedro, 6
Tel. eta Faxe: 943 64 37 75
20280 HONDARRIBIA



ENARA

INMOBILIARIETAN ADITUAK

www.inmobiliariaenara.com



San Pedro 1
20280 HONDARRIBIA
Serapio Mugika, 2
20302 IRUN

Tel. 943 64 39 72
Tel. y Fax 943 64 54 38
Tel. y Fax 943 00 46 28

Itsaskiak egiteko baldintzak jarri ditu Eusko Jaurlaritzak

Puntaletik aireportura ezingo da ezer harrapatu



Ez da erraza izango irudi hau errepikatzea aurten

Eusko Jaurlaritzak itsaskiak egiteko zenbait baldintza jarri ditu. Bidasoa ibaiaren bokaletik Puntalera doan ur zatian. Han hartzen diren itsaskiak aztertu egingo dira arrantzaleak saldu aurretik. Bien bitartean, Puntaletik aireportura doan ur zatian, ezin izango da itsaskirik harrapatu Eusko Jaurlaritzak esan duenez.

Hondarribian jarri den debeku hau, Mundaka eta Plentzian ere egin da. Itsaski harrapaketarako irekita dauden guneeetan, hauek dira hartu ahal izango diran espezieak: ostrak, nabajak, berberetxoak, txirlak eta muxilak. Muskuiluak harrapatzea erabat debekatu egongo da.

Eskupilota eta zesta punta ikastaroak Jostaldin


Hondarribiko Pilota Eskolak indarberriturik ekingo dio denboraldi berriari. Honela, Jostaldin bertan egingo dira esku pilota ikastaroak eta baita zesta puntakoak ere.

Esku pilota ikastaroak benjamin, haur, kimu eta kadete mailatan emango dira, astearte eta ostegunetan, 17.00etatik 19.30era, irailaren 25ean hasi eta ekainaren 20ra arte, Michel Berra monitorearen zuzendaritzapean.

Zesta punta ikastaroak, aldiz, gaztetxo zein helduei zuzenduta egongo dira eta urriaren 1etik ekainaren 16ra emango dituzte eskolak, astelehenero, 17.00etatik 22.00etara. Monitore bezala, Juan Antonio Compañón Konpa eta Iker Foronda, Jai-Alive enpresako pilotari profesionalak arituko dira.

Esku pilota zein zesta puntan izena emateko, umeek eskoletan banatu diren orriak bete behar dituzte eta helduek, arratsaldetan, 19.30etik aurrera, Jostaldiko harreraren galdetu. Ikastaroen prezioa, hileko 15 eurokoa da umeentzat eta 30ekoa, zesta punta egingo duten helduentzat.

Bestalde, pilota eskolatik gogoratu nahi izan dute Jostaldi frontoia Hondartza kiroldegiak kudeatzen duela. Frontoia erabiltzeko orduen erreserbak, beraz, kiroldegiaren bitartez egin behar dira.



Argazkia: Floren Portu

Eraberritutako pilotalekuan emango dira ikastaroak

Aise
BIDASOA

Zentro psikopedagogikoa
Laguntza eskola

Miren Zabala

Juan Laborda 2, behea
20280 Hondarribia

Tel.: 943 64 05 65 - 656 71 22 92

E-mail: aisebidasoa@euskalerria.org

**PINTXO, RAZIO ETA OGITARTEKOETAN
ESPEZIALIZATUA**

Bar Ignacio

**SAN PEDRO, 20 20280 HONDARRIBIA
TEL. 943 643 557**

Zabalik da Bordari Satarka lehiaketako lanak aurkezteko epea



lazko lehiaketan garaile irten zirenak epaimahaikide batzuekin eta orduko Euskara zinegotziarekin

Zabalik dago jadanik XXIV. Bordari eta Satarka Literatur Lehiaketa. Urtero Hondarribiko Udaleko Euskara Batzordetik antolatzen den ipuin eta olerkien lehiaketa honetan parte hartu nahi duenak bi asteko epea dauka lana entregatzeko, azaroaren 5eko eguerdiko hamabietan amaitzen baita.

Bi lehiaketa desberdin daude, Bordarirena ipuinei zuzendua eta Satarkarena olerkiei. Lehiaketa bakoitzean bi maila desberdintzen dira, hain zuzen adin nagusikoak diren eta ez direnentzat.

Hemezortzi urtetik gorakoek A maila osatuko dute bi lehiaketetan. Kasu hauetan garaileak 800 euroko saria eta oroigarri bat jasoko du.

Bigarren sailkatuak aldiz, 400 euro eta oroigarria eskuratuko ditu. B mailan parte hartzen dutenentzat, sariak 400 eta 250 eurokoak izango dira. Hortaz gain, Hondarribiko lan onenari beste sari bat gordetzen zaio atal bakoitzean.

Aurkeztutako lanek aurretik argitaratu gabeak izan beharko dute, eta gaia librea. Hortaz gain, zenbait baldintza bete behar dira lana baliagarritzat bezala hartua izan dadin. Helduen mailan, ipuinak gutxienez hiru orrialdeko luzera izango du eta gehienez hamarrekoa. Olerkien kasuan, gutxienez 50 lerro izango ditu lanak, eta gehienez 150.

Ipuinen neurriak

B mailari dagokionez, ipuinak 2 eta 6 orrialdeetakoak izan beharko du eta olerkiak ordea, 40 eta 120 lerroetakoak.

Idatzia Euskara Batzordean aurkezterakoan, beste zenbait baldintza bete beharko ditu egileak. Izenburua, egilearen izenordea eta bertakoa den edo ez zehaztea. Sobre itxi batean azalean, aurkeztu den lanaren titulua eta egilearen izenordea jarriko da, eta barnean, garrantzizkoak diren beste zenbait datu gehitu beharko ditu: izen eta deiturak, helbidea eta telefono zenbakia.

EXPERT GEURIA

SUKALDEKO ALTZARIAK

Tel. 943 64 07 14

ETXETRESNAK

Tel. 943 64 33 86

San Pedro, 3 • San Pedro, 4
20280 HONDARRIBIA

HONDARRIBIKO GIMNASIOA

AEROBIC, SPININ, FUNKY, HIP-HOP,
BODY BULDING, BODY COMBAT,
MUSKULAZIOA, MANTENIMENDUA,
MASAJEAK, SAUNA, PIRAGUEN ALOKAI-
RUA ETA GORDELEKUA...

"ZURE GIMNASIOA HERRIAN BERTAN"!!!

Hondarribia Arraun Elkarte • Tel. 943 64 01 61 • 20280 HONDARRIBIA

HONDARRIBIKO HISTORIAREN LAGUNEN ELKARTEA

Jose Antonio Salaberria



Hondarribia ezaugarri batez definitu beharko bagenu, bere izaera historikoa aipatu beharko genuke, denborak gure hirian barrena utzitako arte eta eraikinen ondare baliotsuaz ahaztu gabe. Hondarribia beti izan da ikerketa, lan eta proiektu askoren ardatz, eta horren adibide da orain hilabete gutxi jendeari bere ateak ireki dizkion Erreginaren Baluarte birgaitua, beste askoren artean. Hilabete honetako aldizkarian Jose Antonio Salaberriarekin, Hondarribiko Historiaren Lagunen Elkarte-ko kidearekin, izandako elkarrizketa jaso dugu, eta hona jarraian elkarteaz, esku artean dituzten proiektuez eta gauzatuak dituzten beste hainbatez kontatutakoak.

Zertan datza Hondarribiko Historiaren Lagunen Elkarte? Noiz sortu zen?

Gure elkarte historia elkarte da eta bere sorreraren "errudunetarik" bat ni neu izan nintzen. 1997an lagun talde txiki batek solasaldi sail bati ekin zion eta hauen helburua gure ondare historikoaz hitz egitea zen. Solasaldi hauetan gure taldeari itxura formalagoa ematea erabaki zen, era hartan hasiera-hasieratik argi izan genuen jarduera bati ekin ahal izateko: gure ondarearen ezaguera zaintzea, babestea eta zabaltzea. Elkarte sortu zenetik argi genuen gurea irabazi-asmorik gabeko elkarte zela, apolitikoa eta nabarmentzeko inolako nahirik ez zuena. Horrekin batera, argi ere garbi genuen gure ibilbidea Udalaren eskutik egin behar genuela; horregatik, elkarte sortu eta eman

genuen lehen urratsetariko bat udal-agintariak Ramery eraikinera gonbidatzea izan zen, gure lankidetzaz asmoa azalduz. Harrezkero, gure elkarte eta Udala batera aritu dira, eta hasierako elkarrizketa haietatik Ramery eraikinaren barrualdearen 1go birgaitzea egiteko aukera sortu zen, eraikinaren zaintze egoera tamalgarria baitzen. Modu berean, Polborinean parte hartu genuen eta proiektu hau ere Udalarekin batera burutu genuen.

Zeintzuk izan dira gaur egun arte elkarteak egindako lanak?

Gure ondarea zabaltzeko nahiari hasiera emanez, XVII. mende hasierako gure hiriaren isla zen maketa egin genuen. Aipatu maketa Iruñean bizi den Luis Sarasola hondarribiarrak egin zuen.



AXOLA INMOBILIARIA AGENTZIA

Salmentak
erosketak eta
alokairuak

San Pedro, 1 - Hondarribia
Tel.: 943 11 03 38 - 669704686 - 619411542



**RESTAURANTE
ASADOR**

AINERE

C/ MAYOR, 31
TEL. 943 64 35 00
HONDARRIBIA

Jarraian, jarduera txiki batzuei ekin genien, "frantses putzua"ren aurkikuntzari, esaterako. Putzua XIX. mendearen erdialdean hormatu zen alkatearen aginduz, herritarrek bertara animalia hilak botatzen baitziztuzten. Horma bertan behera bota genuenean, putzua agertu zen eta oso egoera onean, gainera. Oraindik ere gorputzean dut une hartako zirrara, putzuaren karelean ura bertatik ateratzeko erabiltzen zuten sokak utzitako arrastoa ederkiki asko ageri baitzen urteak iragan ziren arren. Aurkikuntza honekin zera berretsi genuen: gure hiri harresituak edozein setio egoerari aurre egiteko ezinbestekoa zen putzu-sarea zuela.

Kale berean -Etxenagusia Margolaria kalean- burututako hurrengo jarduera Erdi-Aroko harresiaren hormatala birgaitzea izan zen. Ondoren, Sainduako ermita birgaitu, eta, beharbada, gerora izan duen garrantziagatik, gertaera aipagarriena 2001ean Erreginaren Baluartearen lehenengo birgaitze proiektuaren aurkezpena izan zen. Birgaitzearen lehen proiektuaren asmoa oso garrantzitsua izan zen, azken jarduera Manuel Manzano Monis arkitektoak egin baitzuen 60. hamarkadan. Gaur egun, Alberto Ustarroz eta Manuel Iñiguez arkitektoek Miren Ayerberen zuzendaritza arkeologikoarekin aurrera eramandako Baluartearen birgaitzea bukatuta, proiektuek aurrera darraite. Bukatu den lanak hasiera eman go baitio (eta ez amaiera) beti gurekin egon diren eta hain ahaztuta izan ditugun harresiak eguneroko bizimoduan txertatzeko nahiari.

Baluartearen proiektuaren inguruan aipamen bat egin nahi nuke eta zera da: gure alkateak, Aitor Kerejetak, Baluartearen birgaitzearen proiektuan hasiera-hasieratik parte hartu zuela, eta proiektu honek etorkizunean izango duen garapenean guk adinako ilusioa izateaz gain, izugarri animatzen gaituela orain arteko lankidetzarekin jarrai dezagun.

Arma Plazan izango den museoa, Santa Engraziko ermitaren birgaitzea... Ez zarete lan gutxitan parte hartzen ari...

Bai, hala da. Sainduarekin hasi genuen bidea Santa Engraziko ermi-

tarekin jarraitu dugu (irakurleek lerrook irakurtzerako birgaitzea agian bukatuta egongo da), jarraian Santa Barbara, Santiagotxo, Montserrat eta San Telmokoekinez. Saindua amaituta dago, Santa Engraziko ermita ere aurki egongo da eta gure asmoa Santa Barbara eta Santiagotxokoekin jarraitzea da. Montserrat eta San Telmoko ermitei dagokienez, birgaitzeaz hitz egitean ez gara birgaitze fisikoaz ari, noizbait bertan egon zenaren memoria historikoa birgaitzeaz baizik. Honi loturik, ermiten historia txiki bat egiteko aukera ere aztertzen ari gara.



Ainara Elizondo



Historiaren Lagunen Elkartaren egoitza Panpinot kalean dago

Bukatzeko, aipatutako guztiak helburu bat duela argituz amaitu nahiko nuke elkarrizketa: GUNE HISTORIKOA BIZIBERRITZEA.

San Pedro 49, bajo
20280 HONDARRIBIA
Tel. 943 641 995

Zuloaga, 8
20280 HONDARRIBIA
Tel. 943 111 656

GESTIOA:

- * KONTUHARTZAILEATZA, FISKALA
ETA LANAREKIN LOTUTAKOA
- * ASEGURROAK

GESTIÓN:

CONTABLE,
FISCAL,
LABORAL
* SEGUROS

“Euskaldunon antzinako sustraiak” (VII)



Martin Iturbe

Ortzian zehar ibiltzea dagokigu gaur:

Goi alde horietako argi-izpien dizdirak zeresana izan du, zalantzarik gabe gure aurrkoen pentsabidean:

J) ZERUKO ASTROAK

Zeruetako argiek bizitzaz hitzegiten diotela euskaldunari, esaten genuen aurrekoan; heriotz ondoren hildakoak darman bizitzaz batez ere.

Izartegira joaz, hiru eredu aitatuko ditugu.

Izarrak

Euskaldunaren mito-ikuspegitik, izarra heriotz ondorengo giza bizitzaren jarraipena litzateke zeru-sabaian.

Pentsamolde honen lekuko geratu da honela dioen ohitura zahar hau: zerurantz begiratzean eta lehen izarra azaltzen denean, “Aitaren “ egin behar da.

*Ortzia, izarrak, ilargia...
esanahiz beteriko hitz eta gauzak
dira euskaldunarentzat.*

Ilargia

Bizitzarekin zerikusi bereizia duen astroa dugu ilargia aintzinatik euskal kulturaren alorrean: honela, adibidez, bizitzak dituen gertakizunen sinbolua da: jaiotzarena, heriotzarena: ilargiaren mende daude urak, landareak, emankortasuna, eta honegatik, denboraren neurria da. Garaian, argi-ilunbe, bizitz-heriotzaren irudi da.

Kontutan hartzekoa, hilen argi deitzen zaionez gero, euskal pentsaerak duen sinesmoldea ilargiaren inguruan, heriotza bera ezerez bezala ez baizik nolabaiteko izakeraz jantzitako bizikera bezala espresatzen duenean: hilak badira, biziek ez bezelako beste izakera bat dute.

Eguzkia: EKH

Lehenago esan dugu eguzkia lurraren alaba deitzen dela eta gizonarentzat emana izan dela honen argitarako.

Horregatik, eguzkia indar onurakorra da gizonarentzat. Etxe - aurreak ekialdera begira egin ohi ziren; berdin, bordak ere eta Neolitiko tripuharriak. Mitoena ikus daitekeenez, eguzkiaren izpiak uxatu egiten ditu laminak eta espiritu gaiztoak.

Eguzkiaren gorabehereri loturiko jaiak dira (edukiaren aldeetik ez bada, bai ospakuntza garaia aldetik) gureganaino iritsi diren Gabon eta San Joan jaiak (eguzki-beheren eta gorenean) eta Pazkoa (gau berdinean).

K) TXIMISTA ETA TRUMOIA

Tximista euskaldunak zeruko sua bezala ikusi izan zuen: eraginkorra, indarrez jantzia, kreaioaren ahalmen paregabea. Hori zela-ta, jauntasunaren irudi bezala onartua izan zen.

Gauza horien agerpen edo irudi delarik, euskaldunak berauren aurrean zenbait errito egin ohi ditu haren indarra baretzeko edo haren kemenak kalterik egin ez dezaion: haizkora ahoz gora jarri, erramu nahiz lizar egurrez egingako gurutzeak ateetan jarri, loredun elorri-adarrak leihoe-tan jarri... (ez ahaztu hemen, lehenago landareen esanahiari buruz esan duguna)

Trumoia, berriz, tximistaz esan duguna litzateke, baina haren alde beldurgarritik eta kaltegarritik ikusita.

Honen arauera, bada Euskal Herrian hainbat eta hainbat ermita herritik at edo mendietan daudenak, bertan ermitau bat bizi zedin eta konjuruak eginaz trumoia urrundu zezan eginak.

(Jarraituko du)



Hondarribiko jaiak 2007

Argazkiak: Fernando de la Hera

Jaiei hasiera ofiziala Aitor Kerejeta alkateak eta Remigio Mendibururen familiak eman zion, irailaren 7an eguerdiko 12etan. 300 suziri bota ziren ordu laurden batean.



Graffiti lehiaketak jende asko biltzen du. Aurretik harresiaren beste aldean ospatu da eta lanak jaiak amaitu arte hantxe egon dira nahi zuenak ikusi ahal izateko.

Musikari gazteek zeresan berezia dute jaietan.



Erraldoi eta Buruhandiek irteera asko egiten dituzte urtean zehar. Jaietakoa da agian politena.



Haur eta gazteentzat jarduera ugari antolatzen dira, eta urtetik urtera jende gehiago hurbiltzen da.



Amezti Gojenola, Bandako kantinera Kale Nagusian gora



Jaietako irudi esanguratsuenetako bat. Hatxeroak maldan gora, Alardeari hasiera emanaz.



Aurten lehen aldiz Mikel Jauregi izan da burgomai-sua.



Urteak joan urteak etorri, pailazoak ezinbestekoak dira jaietako egitarauan.



Irailaren 10eko batukadak sekulako jendetza biltzen du. Urte gutxi daramatza, baina ekitaldi arrakastatsuan bihurtu da.



Jaietan antolatzen diren lehiaketa desberdinen garaileek irailaren 10ean jaso zuten bere saria Udaletxeko Areto Nagusian.



Harri zultatzaileek ikusmin handia sortu zuten San Pedro kalean.



Gure arraunlariak Kontxako banderan hiru-garren sailkatu ziren. Alameda jatetxean bazkaldu ondoren, pozik denak Hermandadera.



Baserritarren egunak goraino bete zuen Alameda. Ezinbesteko ekitaldia da jaietan.



"La pelota a mano en el siglo XXI" liburuaren aurkezpena irailaren 11ko pilota partida aurretik egin zen.

Jaietako Ama Guadalupekoa belauntzien estropada ospatu da

4 2 izan dira aurten jaietako Ama Guadalupekoa belauntzien estropadan parte hartu dutenak. Urtero bezala, Hondarribiko Itsaskari Baita izan da antolatzailea. Asko izan ziren parte hartu zuten hondarribiarrak, eta maila bikaina erakutsita gainera.

Hau izan zen estropadaren garaileen koadroa;

HN KLASEA

Ariña Bi, Iñaki del Rincón-ena

IRC KLASEA

3º MIRUA, Jose Luis Artola (RCNSS)

2º MASTRANQUILO, Guillermo Limousin (CNH-HIB)

1º ENBATA 80, Iñigo Jauregi del (CNH-HIB)

OPEN 570 KLASEA

3º AZZURRO MEKANIK, Mikel Vazquez (CNH)

2º IONIK, Ion Obeso (CNH)

1º PETIT MOUSTIC, Laurent Iturbide (Yacht Club Basque)

Estropadaren ostean, partehartzaileek, bere senitarteko eta lagu-



Jaietako programaren barnean dago belauntzien estropada

nek, Hondarribiko Itsaskari Baitak antolatutako txardinada batez gozatu ahal izan zuten, Euskadiko Kirol Portuak elkarteak dauzkan instalazioetan.



Begoña Garcia bere lehengo taldera itzuli da

Garcia eta Checa Hondarribia-Irunera itzuli dira

Begoña Garcia joko-banatzalea eta Maite Checa hegalekoa aurkeztu zituen irailaren erdialdera Hondarribia-Irunek. Bi jokalariek "oso pozik" azaldu ziren Hondarribira itzultzeagatik. Garciak eta Checak Hondarribia-Irunen jokatu zuten 2002-2003 sasoian, Bidasoako taldea maila nagusira igo zen sasoian. Denboraldia urrian hasiko da, baina irailaren erdialdera Jon Txakartegiren neskek entrenamenduak hasi zituzten. Iazko lana berdindu edo hobetzea da bere helburu nagusia.



niretzat Zuretzat guztiontzat

San Pedro 57 • 20280 Hondarribia
943 643 805

Focus
DAILIES™

Ikusmen egokitze
mota guztietarako



Ikusmenaz goza ezazu



NI
nire
bataurrekoak nire lentillak
Focus DAILIES



Txangai konpainiako kantinerak (07)

Doinua: "En una jaula de oro..."

(Maria Narbarte, aurtengo kantinera.
Rosa Mitxelena, orain 50 urtekoa:
berarentzat urteroko oroimen-plaka).



Jexux Mari Mendizabal

Festa bat ospatu zen
irailak bostean
TXANGAI-ko kantineren
ohoreen ospean.
Ardora-n bazkaria
neurriko kostean,
Katxarrosek bertsoak (ai, ai, ai)
bazkaldu ostean.

Katxarroren bertsoak
kantatu beharrak
poztu zituen neska,
mutil etabarrak;
bai eta piztu ere
suak eta garrak:
ikustekoak ziren (ai, ai, ai)
Rosaren negarrak!

Rosaren negarrekin
Mariaren pozak:
kantinera guztiak
hain zeuden panpoxak!
Hemen jarriko ditut
orduko hitz hotzak,
inoiz gal ez daitezen (ai, ai, ai)
Katxarroren hotsak:

"Bi mila ta zazpiko
irailaren bosta,
TXANGAI-ko kantinerak
Ardora-n mordoska...
Zaharrak eta gazteak
kosta ahala kosta
egun eder hau pozik (ai, ai, ai)
dezagula ospa!!!

Batzuek laurogei ta
besteek hogeitaz urte:
zenbat neska ederrek
TXANGAI-n duen parte!
Nahiz lajatu ezin den
bat ere aparte,
aurten zuri zori-on, (ai, ai, ai)
Maria Narbarte!!!

Apartatzen hasita
bat da aproposa,
orain berrogeita hamar
urteko airosa.
Atseginean luzaz
dezazula goza
konpainiaren plaka, (ai, ai, ai)
Mitxelena Rosa!!!".

Jesus Mari Mendizabal
"Bizargorri"-k jarriak.
Hondarribia, 2007



Industria tresneria
Elektrizitatea
Giltzen kopiak
Torlojugintza inoxidablea

MARINEL

Burdindegia

Beñat Etxepare 12 / Txiplao 14
Tel. 943 64 17 88 20280 HONDARRIBIA

BAR ETXEBERRIA

Alde Zaharrean

Kale Nagusia, 27 - HONDARRIBIA


Argazkiak: Estitxu Ortolaiz



Iraiaren 5ean Ardora Jatetxean Gora Arrantzale Gazteak konpainiako kantineren bazkaria ospatu zen. Giro ederrean, egun bikaina ospatu zuten bertan bildu ziren guztiek. Maria Narbarte izan da aurtengo kantinera, goian ezkerrean ikus daiteken bezala.



Urtero antolatzen den bazkari honetan, bi plaka banatzen zaizkie beste hainbat kantinerei, zaharrenetik gazteenera. Norbait haurdun badago lore sorta bat ematen zaio. Emakume batek kantinera joan zenetik 50 urte betetzen dituenean, plaka bat ematen zaio era berean. Oso ekitaldi berezia izaten da, bertara joaten direnek esaten digutenez.




kai zahar

pub
almirante alonso, 12



truck
diskoteka
foru kalea, 13



kaialde

jatetxea · restaurante
erretegia · asador
itsasargi 8 · 20280 · hondarribia
tel. fax 943 644 622 · kaialde@yahoo.es

Udal Delegazio bat Bolivian izan da lagundutako proiektuak aztertzen



Pasatako uztailaren 15etik abuztuaren 5 bitarte, Bidasoa bailaratik joandako delegazio bat Bolivian izan zen bertoko erakundeetatik laguntzen diran proiektuak ikuskatu asmoz. Han izan ziren Josebe Fernandez, Hondarribiko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako erantzulea, eta Mari Carmen Quesada, Irungo Udalen ordezkari bezala.

"Bidaia gogorra izan da" esan digu Josebek. "Jendeak uste du oporrak direla, baina ezta gutxiago ere. Goizetik gauera hemendik diruz laguntzen ditugun Gobernu Kanpoko Erakunde lanak aztertzen egon gara Bolivian, hain zuzen ere Beni inguruan, Boliviako Amazonian".

Bidasoako ordezkariak proiektu ugari ikusi dituzte, eta DOA, Taupadak eta 'Fe y Alegria' GKEen ordezkariekin izan dira. Era guztietako proiektuen gainean egon dira, Udaletik laguntzen diren proiektuek aurrera nola egiten duten aztertzen. "Ikastetxeak, ospitaleak, lurren titulazioak burutzen dituzten egitasmoak... Denetatik ikuskatu du Josebek.

"Behar handia dago Bolivian" dio Josebe Fernandezek. "Oso herrialde pobrea da, baina bidaia oso positiboa izan dela esango nuke. Gobernu Kanpoko Erakunde hauek egiten duten lanarengatik ez balitz, ez dakit zer nolako egoeran biziko liratekeen han. Hemendik bidaltzen zaien laguntza ezinbestekoa dute".

Laguntzak emateko irizpideak

Udaletatik laguntzak ematerako orduan zenbait faktore hartzen dira kontuan. "Ez da dirua edozein modutan banatzen. Guk nahi duguna, beharra duen herrialdean azpiegiturak sortzea da, eta



Bertoko jaietan parte hartu zuen Bidasoatik joandako delegazioak.

RESTAURANTE
ARRANTZALEEN KOFRADIA

Eguneko menua, Ekitaldiak, Ibilaldi belaontzian,
Menu bereziak, Komunioak

www.navegavela.com
Bela ikastaroak

Telf.: 943 64 42 12

Paseo Ramón Iribarren, nueva Ionia - 20280 HONDARRIBIA

Hemen zure opariak eros ditzakezu; PSP, PS2, filmeetako pertsonaiak...

The Big Orange

Puntuak opariengatik aldatu, Orange txartelarekin

Etxez-etxeko zerbitzua duen zure bideo kluba

bertoko jendea formatu eta hezi, sortutako azpiegitura hauek gestionatu eta garatu dituzten. Adibidez, orain ostalaritza gune bat egingo da, eta hango herritarrak gai honetan hezi nahi da, gero beraiek izan daitezen prozesu osoa kontrola dezaten" dio Josebek.

Hortaz gain, Udalak beharrezkoa ikusten du lagundu beharreko proiektuek pertsonaren formazioarekin loturik egotea, baita emakumearen bizi egoera hobetuta egotea ere, oso beharrezkoa baita.

Bolivian denetatik ikusi ahal izan dute. "Era guztietako garraioak erabili ditugu: hegazkinak, abionetak, taxi-motoak, traktoreak, kanoa... basoan ibili eta lo egin dugu... Uste baina gogorragoa izan da, baina toki horietan aritzen dira Gobernu Kanpoko Erakundeak lanean" dio Josebe Fernandezek.

Bertoko jendearekin integratzeko aukera izan dute. "Han geundelarik, San Ignacio de Moxos-eko jaiak ziren, eta hango emakumeekin desfile batean parte hartu genuen, han ohikoak diren jantziekin. Oso polita izan zen".

28 proiektu begiratu dira

Josebe eta Mari Carmenek 28 proiektu aztertu dituzte Boliviara egindako bidaian. Trinidad (Beniko hiriburua), San Ignacio de Moxos, eta beste zenbait komunitate indigenetan ibili dira, San Francisco, San Lorenzo, Gundonovia, Santa Maria de la Junta... bisitatu dituzte, era guztietako proiektuak ikusten. "Eskerrak eman nahi diet" amaitzen du Josebek, "DOA, Taupadak eta 'Fe y Alegria' erakundeetako ordezkariak, han geundelarik asko lagundu digute eta. Lan bikaina burutzen ari dira han eta gure asmoa laguntzen jarraitzea da".



Zenbait proiektu urtez urte laguntzen dira, lana amaitu arte.



Era guztietako proiektuak aztertu zituzten.

OTXOA

JANARIDENDA

*Barazki, fruta eta
horrelakoetan aukera handia*

San Pedro 43
Tel. 943 64 16 84
20280 HONDARRIBIA

Ondare

- GOZOTEGI
- OKINDEGI ARTESANALA
- TERRAZADUN
- KAFETEGIA
- HAUR FESTAK

C/Amute, 6 bajo
Tel.: 943 64 62 82
HONDARRIBIA



Kofradiako hiru ontzi dabilta atzerrian lanean

Hondarribiko arrantzaleak aipatzen ditugunean, beti inguruko uretan atunetan aritzen diren ontzi handi eta txikiak aritzen gara normalki, beheko zerrendan agertzen diren ontziak hain zuzen. Hala ere, badira etxetik oso

urrun lan egiten duten arrantzale hondarribiarrak.

Done Pedro Itsas Gizonen Kofradiako hiru kide dira atzerrian lan egiten dutenak: Aita Fraxku, Kermantxo eta Berriz San Francisco. Hiru ontzi hauek urte guztia egiten dute atzerrian eta armadoreak txandaka etortzen dira Hondarribira denboraldi bat igarotzera, oporrak izango balira bezala.

Berriz San Francisco ontzia Dakarren (Senegaleko hiriburua) dago atunak arrantzatzen, eta Kermantxo eta Aita Fraxku aldiz une hauetan Seichelles irletan dabilta une hauetan atunak markatzean datzan proiektu batean. Urrian, proiektua bukatzean, Tanzania eta Keniara joango dira atunak arrantzatzeraz.



ARRANTZALE KOFRANDIAN ABUZZUAN SALDUTAKO ARRANTZA

Txitxarroa (Trachurus trachurus): 174,80 kilo
Hegalmotza (Thunnus thynnus): 682.392,30 kilo.
Hegaluzea (Thunnus alalunga): 625.912,20 kilo.
Atun moja (Thunnus obesus): 54,00 kilo.
Makarela (Scomber japonicus): 414,00 kilo.
Bestelakoak: 78,00 kilo.

(Fermin Olaskoagak jasotako datuak)

Ontzi txikiak

Itsasontzia	Marinelak
1. AITA RAMON	5
2. ARANTZAZUKO IZARRA	6
3. ARTXANDA EDER	2
4. BERRIZ AMATXO	6
5. GURE AMA MARTINA	5
6. GURE ITXAROPENA	6
7. MARIÑEL	5
8. NUEVO ROBER	6
DENETARA	41

La **bacaladera** S.A.U. **pasaia** **del saladc**

Pol.n.Chumarra - Escorza - 20300 Irun
 Telf: 943 63 90 33 Fax: 943 63 06 70 www.bacaladera.com



Fruitu eta barazki ekologikoen inguruan

Txuntxumela bio dendak esfortzu handia egiten du nekazariengandik produktu freskoak jasotzeko, bere bezeroei kalitate goreneko produktuak eskainiz. Kontsumitzailerentzat produktu ekonomikoenak bilatzen dira eta era berean natura eta gure ingurugiroa errespetatuz.

Baratze ekologikoetan metodo eta erritmo naturalenak eta esku-hartze kaltegabeenak aukeratzen dira, haiek artezten dituzten eta gaur arte irautea ahalbidetu dieten manuak betez. Helburua ahalik elikagai osasungarrienak eta kutsagarri, pestizida edo herbizidarik gabekoak ekoiztea da. Gainera, kontu handiz begiratzeko da hazien jatorriari, transgenikoak saihesteko.

Fruitu eta barazki ekologikoek gero eta arrakasta handiagoa dute. Produktu kimikoetatik urrun daude, orekatuagoak dira, bitamina gehiagorekin eta ingurugiroa gehien errespetatzen dutenak gainera.

Naturaren legea jarraitzen da produktu ekologiko hauetan. Pestizidatik gabe ereitea posible da, errotazioak eginda, konpost-a erabilita. Horrek denak, nekazariaren partehartzea behar du, ezagupen aldetik nekazari honek zenbait aholku beharko ditu. Naturak eskertu egingo du, baita gure bizi kalitateak ere



Ofertas Eskaintzak

-OATLY natural olo esnea 1l: 2,25 €

6 + 1 dohainik eta 11 + 2 dohainik

-SANITURI soja esnea 1 l: 1,95 €

3+1 dohainik & 12 +8 dohainik

-LIMA arroza-banilla original esnea 500 gr: 2,65 €

6 + 1 dohainik eta 10 + 2 dohainik

-BIOCOP basmati zuri arroza cl: 2,95 €

1+1 dohainik

-NATURSOY fresko produktu (hanburgesa, tofu, seitan, saltxitxa ...)

2 unitate %15

-LIMA gorri fruitu zukua + kaltzio azukrarik gabe

1l: 3,65 €

2+1 dohainik eta 3+3 dohainik

-VITARIZ arroza-txokolate esnea 1l: 2,55 €

2+1 dohainik eta 3+3 dohainik

Arreta pertsonala



EUSKAL LIBURUAK EROSTEKO AUKERA OLEARSO LIBURUDENDAN



HONDARRIBIA IRUDITAN

Duela urte batzuk, udal artxiboak postal bilduma eskuratu zuen, XIX. mende bukaeratik, gure hiriko bizitza, arkitektura eta paisaia islatzen zituenak. Proiektu honen bidez, postalak interesatuen esku egotea lortu nahi da. Hori dela eta, postal hauek CD batekin argitaratu dira. Postal hauek, gaika multzokatuak, Martin Iturbe jaunak eta Jesus Mari Mendizabal "bizargorri" idatzitako olerki eta bertsoen sarrera dute. Gainera CDan, hiriko kulturaren ondarea diren hainbat musika biltzen dira. Idazkera, irudia eta musika bat egiten diren proiektua.



KARABANA BATEAN BIZI NAIZ

Daniel karabana batean bizi da gurasoekin, arrebekin eta aitonarekin. Beti leku batetik bestera ibiltzen dira. Aitona asko maite du Danielek, nahiz eta batzuetan gogaitu egiten den haren historia zaharrekin. Aitonak jende ibiltarien kontu zaharrak berritzen jarduten baitu beti; beren bizimodua nolakoa zen garai batean, karroan ibiltzen zirenean behorrek tirata, edo suaren garrantzia, suak berotasuna ematen baitu, eta denik eta sendabiderik onena baita, aitonaren esanetan, bat gaixotzen denean. Danielek gustuko du karabanako bizimodu ibiltaria, abentura asko bizitzeko aukera ematen baitio horrek. Eta lagunei nola bizi diren kontatzen dienean, inbidia eragiten die guztiei.



EZ DADILA EGUZKIA SARTU

Gerrako lubakitik futbol-zelaira eramane zituzten hainbat gazte 1937ko udaberrian. Futbolariak ziren denak ere, Espainiako ligan hainbat ekipotan jokatu ohi zutenak, baina baloiaren ordezkari hartu zutenak, Euskadi eta Errepublikak defendatzeko. Agintariek, ordea, galtza motxetan jarri zituzten berri, Euskadiko selekzioa osatuz eta Europar barrena zenbait partida jokatuz mesede handiagoa egingo zutelakoan. Propagandaren partida inportantea baitzen gerra irabazteko, lubakiak bezainbat.



HONDARRIBIKO HISTORIA

Liburu honen bidez gure hiriaren Historia bildu nahi izan da era kronologikoan Historiagatik frankismora arte. Horretarako 15 historialariko taldearen lankidetzak izan da Deustuko Unibertsitateko Jose Luis Orella irakasleak koordinatuta. Fidakarritasun historikoa duen liburua eta derrigorrezko kontsulta liburua bihurtuko dena. Historialari taldea honako hauek osatzen dute: Jesus Altuna, M^a Mercedes Urteaga, Jose Luis Orella, Lourdes Soria, Manex Goienetxe, Antonio Prada, Carlos Larrinaga, Pedro Barruso, Alvaro Aragon, Iñigo Hidalgo, Maria Isabel Astizaran eta Txomin Sagarzazu.



PRAILEAITZ

Debako Praileaitz I aztarnategia babesteko liburua bat da. Artez betetako liburua, artea babesteko sortua. Egungo artistek sortua garai bateko artea ez galtzeko. Praileaitz I liburua Praileaitzen Lagunak elkarteak argitaratu du, arlo guztietako 210 artistaren ekarpenekin, euren lanarekin eta euren iritziz argiarekin. Luxuzkoa da kanpotik atzo aurkeztutako liburua. 29 x 29 zentimetrokoa, 240 orrialdekoa, azal gogorrekia eta hiru hizkuntzatan argitaratua, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez.



HONDARRIBIKO BASERRIAK

Hondarribiko udalerrian dauden baserri guztien bilduma da, agiri eta bizi izan ziren familia-zerrendarekin, eta abar... Fermin Olaskoaga, Luis Mari Eloseg, Jose Ramon Gebara eta Koldo Ortega hondarribiarrek egindako lan bikaina dugu. 546 orrialdetan gure baserri eta aitzindariak buruz zerbait gehiago jakiteko aukera paregabea. Auzoz-auzo gaur egun dauden eta egon diren baserrien informazio zabala topatuko duzu bertan, ongi dokumentatua gainera.



OLEARSO LIBURUDENDAN ESKURAGAI DITUZU
EUSKARAZKO LIBURU UGARI

ETOR ZAITEZ ETA GALDETU!

San Pedro 12 - HONDARRIBIA
Telf: 943 64 25 25



Kurtso berriarekin...

CIP BIDASOA LHI

16 eta 21 urte bitartekoa bazara eta DBH graduatua ez badaukazu, ikas ezazu LANBIDE bat DOAN.

Aurten eskaintzen dira:

- Ileapaintzaile Estetizista.
- Sukaldari Gozogile.
- Iturgin eta Gas Instalatzaile.

Izen emateak irailaren 10etik aurrera Bidasoa Bizirik-en (Anaka 27, Irun. Tel: 943633160) edota Gazte Informazio Bulegoan.

UNIBERTSITATE MAILAKO MUGIKORTASUN BEKAK

Ikasketak euren erkidegotik kanpo egiten dituzten unibertsitateko, goi mailako arte irakaskuntzako eta bestelako goi mailako ikasketetako ikasleentzako mugikortasun bekak.

Eskaerak 2007-2008 ikasturtean ikasleen ikastetxe izango direnetan egin beharko dira.

EPEA: 2007/10/31

Info +: www.mec.es

NEGUKO ORDUTEGIA

Iraileko 17tik aurrera neguko ordutegira bueltatuko gara.

Astelehenetik ostiralera:

16:30-20:00

Larunbatetan:

10:00-13:00

Partehartu Gomendatzen Dizut lehiaketan.
Inof +: www.aizue.com edo etorri bulegora!!!!!!!!!!!!



ONDARTZ EDERRA

Txiplao Industrialdea, 27 - HONDARRIBIA
Tel/Fax: 943 64 02 56

RAFAEL
TABERNA · BAR



San Pedro Kalea - T. 943 64 61 14
20280 Hondarribia

Non kokatuko zenuke eraikin hau ?



Heldu gara berriz ere irakurleak hain gustuko duen aldizkariaren atalera. Lehiaketan parte hartzen duen jende kopurua ikusita, irakurri eta parte hartzen duen jende asko dagoela ikusi dugu, eta guztiek gainera erantzun egokia ematen dutela ere. Martxoko alean jarritako galderari ia 60 pertsonak erantzun diote.

Oraingo honetan paraje hau non kokatuko zenuken galdetzen dizugu. Makila hartu eta ibiltzera joaten zarenean, ziur askotan ingurutik pasa zarela. Gogoratzen bazara, paper batean idatzi eta Udal Euskara Zerbitzura bidali etxe eder hau non dagoen, gutxienez auzoaren izena, urriaren 10a aurretik.

Azken aleko galdera erantzun dutenen artean bat hautatu behar, eta zozketaren irabazlea **Idoia Taberna Ariztegi** izan da. Berari dagokio beraz bi pertsonentzako afaria Beko Errota jatetxean. Bigarren saria, eta beraz Udal Euskara Zerbitzuko liburu-sorta, **Joana Aguirre Bandres**-entzat izan da

Gosariak
Eguneko menuak:
4 sarrerako
4 bigarren platera
Afaltzeko plater konbinatuak

C/ San Pedro ,34
Telf. 943 645 597
20280 HONDARRIBIA

eguerdiko menuak
sukaldaritza berria
eguneroko plater berriak
gauetz, gure karta zabala, informala

telf.: 943 641 952

san pedro kalea, 79
20280 hondarribia

Zer dakigu kanpandorrearen inguruan?



Hondarribiko toki berezi eta historikoen orrialdera iritsi gara. Eta gure herrian bi ezaugarri hauek batzen dituen gune bat kanpandorrea da. Jakin dezagun zerbait gehiago eraikin bikain honi buruz.

Francisco de Ibero arkitekto azpeitiarrak egindako kanpandorrea barrokoa da. 1762. urtean hasi ziren eraikitzen, eta Juan de Legarra zen hargin-maisua.

Jose Mari Castillo-ren "Argazkiak Hondarribia atzo" liburuaren 169. orrialdean jartzen duenez, kanpandorreak, "Pandiguas" izeneko tamaina diferenteko bi kanpai daramatza iparraldetik, "Hirutasuna"izenekoa hegoaldeetik, "Haundia" bezala ezagutzen dena ekialdetik eta beste txikiago bat mendebaldetik, mezak eta errosarioak deitzeko erabiltzen zena.



**GOZOTEGIA
KAFETEGIA**

San Pedro, 4 - 20280 - HONDARRIBIA



Higer Bidea, nº6 - 20280 HONDARRIBIA
Tel. 943 642 712 - Fax 943 641 105



Fermin Olaskoaga

FERMIN OLASKOAGAK jasotako datuak:

Abuztua2007

JAIOZAK ABUZTUAN

- 2an:** ALLENDE Muñoz Alzola, Donostiako Luis Maria eta Hondarribiko Anaren alaba.
- 4an:** UNAI Leoz Sardon, Hondarribiko Javier eta Irungo Amaiaren semea.
- 6an:** GARAZI Iridoi Bengoa, Hondarribiko Juan eta Donostiako Ainhoaren alaba.
- 7an:** OLATZ Luna Marcos, Hondarribiko Frantzes eta Guinea Ecuatorialeko Wendy Dianaren alaba.
- 13an:** AIZPEA Iglesias Alza, Plasencia-ko (Caceres) Felix eta Hondarribiko Natividaden alaba.
- 17an:** IMANOL Sagarzazu Amunarriz, Hondarribiko Josu eta Hondarribiko Ana Mariaren semea.
- 18an:** ABEL Redero Arroyo, Donostiako Jose Antonio eta Hondarribiko Garbiñeren semea.
- 19an:** IZARO Lazkanotegi Gaztelumendi, Irungo Pedro Maria eta Hondarribiko Gemaren alaba.
- 21ean:** MARINA Cobo Muñoz, Donostiako Francisco eta Irungo Cristinaren alaba.
- 23an:** AINHOA Larrainzar Arbelaiz, Donostiako Eduardo eta Hondarribiko Maria Angelesen alaba.
- 28an:** ALEJANDRO Bizcaia Ospina, Donostiako Matias eta Barranquilla-ko (Kolombia) Monica del Pilaren semea.
- 29an:** XUHAR Labeaga Obeso, Algorta-Getxoko Urko eta Donostiako Ainhararen alaba.



EZKONTZAK ABUZTUAN

- 4an:** JUAN Diaz de Cerio Unanua, Donostiakoa, eta USOA Perez Alberro, Hondarribikoa.
- 11n:** BORJA Escudero Dilla, Hondarribikoa, eta MARTA Alvarez Huete, Donostiakoa.
- 18an:** JUAN CARLOS Barros Martin, Madrilekoa, eta TERESA CLARA Ucar Grañera, Zaragozakoa.
- 18an:** IGNACIO Aginaga Altuna, Hondarribikoa, eta MARIA del JUNCAL Ceberio Unsain, Hondarribikoa.
- 18an:** GREGORIO Bastida Sagarzazu, Hondarribikoa, eta MARIA NOEMI Odriozola Pascual, Donostiakoa.
- 24an:** IÑAKI Huegun Viglione, Irungoa, eta DIANA Herce Susperregi, Donostiakoa.
- 25ean:** FRANCISCO JAVIER Arrue Mitxelena, Irungoa, eta AINARA Arregi Mayoz, Tolosakoa.



HERIOTZAK ABUZTUAN

- 10ean:** MARIA Martinez Aranburu, Hondarribikoa, 86 urte, San Pedro kalean.
- 18an:** TOMAS Sorondo Iriazabal, Hondarribikoa, 89 urte, Madalen karrikan.
- 19an:** MARIA LUISA Larrañaga Creixell, Donostiakoa, 90 urte, Bidasoa kalean.
- 22an:** MARIA SOLEDAD Zugarramurdi Zozaya, Doneztebekoa, 94 urte, Txomorronea baserrian.
- 22an:** MARIA PILAR Goikoetxea Pikabea, Hondarribikoa, 63 urte, Juan de Laborda kalean.
- 25ean:** BOSCO Espinosa de los Monteros Bernaldo de Quiros, Madrilekoa, 61 urte, Jose Olaizola kalean.
- 31n:** LUIS FERNANDO Etxebarria Basterretxea, Parisekoa, 69 urte, San Pedro kalean.



ABUZTUKO EGURALDIAREN DATUAK. (Hondarribiko aireportutik jasoak).

Tenperaturarik gorena:	37,8° C, hilaren 28an.
Tenperaturarik beherena:	12,9° C, hilaren 18an.
Bataz besteko tenperatura:	20,7° C.
Bataz besteko hezetasuna:	% 73.
Euri-litroen kopurua:	231,1 litro.
Egunik euritsuena:	hilaren 23an 79,4 litro.
Euri indartsuenen unea:	hilaren 23ko 11,50etan, 37,8 litro/orduko.
Egun euritsuak:	16 egun.
Elur egunak:	0 egun
Kazkabar egunak:	0 egun
Ekaitz egunak:	4 egun
Behe-laino egunak:	0 egun
Ihintz egunak:	9 egun
Zeru oskarbi:	3 egun
Zeru lainotua:	15 egun
Zeru iluna:	15 egun
Eguzki kopurua:	204,1 ordu
Bataz besteko presioa:	1016,5 milibar
Presiorik gorena:	1025,6 milibar, hilaren 31n
Presiorik beherena:	1006,3 milibar, hilaren 15ean
Haizea >55 Km/ord.	3 egun.
Haizerik indartsuena:	hilaren 20ko 19,03tan, 76 Km/orduko.

HERRIKO BIZILAGUNEN GORA-BEHERAK ABUZTUAN

Altak:Jaiotzak: 12, eta kanpotik etorriak: 41
Bajak:Hildakoak: 7, eta herritik joanak: 51
Biztanle kopuru orokorra: 16.391 bizilagun.

ABUZTUKO UDAL LIBURUTEGIKO DATUAK.

Mailegatutako liburuak: 422 euskaraz, 1239 gaztelaniaz eta 194 bestelakoak. Guztira: 1855 liburu.

Ekarri diren liburu berriak: 4 euskaraz, 98 gaztelaniaz eta 44 bestelakoak. Guztira: 146 liburu.

Bazkide berriak: 9 gizon eta 17 emakume. Horietatik 17 heldu eta 9 haur. Guztira 26.

Gehien mailegatutako liburuak:

Haurrak: Euskeraz:KNISTER.-Kika supersorgina eta futbolarako grina.- Gero.

Gaztelaniaz:TAKAYA, Natsuki. - Fruits basket.- Norma.

*Helduak:*Euskeraz:SASTRE, Pablo.-Gauzen presentzia.- Elkar

Gaztelaniaz:GRANDES, Almudena.- El corazón helado.-Tusquets.

joski

Lentzeria arropa
Haurrentzat arropa

Matxin de Artzu, 18
Tel.: 943 64 17 65 - 20280 HONDARRIBIA





Zure ospakizunak
ahaztezinak bihur
daitezen

1.982 - 2.007

25 URTE HONDARRIBITARREN ZERBITZURA

JAIZUBIA- Tel. 943 64 31 94 - 20280 HONDARRIBIA - www.bekoerrota.com

www.doble-a.com



Amute 8 - behea C Hondarribia
Telf.: 943 667 003



Kortinak
Oihalak
Margo-papera
Jardineko altzariak



C\ Salvador Etxeandia, 6 Bajo Tel: 943 62 52 49 Fax: 943 53 73 48 20304 Irún